

7. IKASSMART-EN FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Ikassmart proiektuak behar bezala funtziona dezan eta arrakasta lor dezan, ezinbestekoa da funtsezko baliabide batzuk izatea, bai ukigarriak bai ukiezinak, kalitatezko zerbitzua eskaintzea eta lehiakideengandik bereiztea ahalbidetzen dutenak.

Baliabide ukigarriak

1. Plataforma teknologikoa (webgunea eta app-a)

Azpiegitura digital honek erabiltzaileak erregistratzea, planak kontratatzea, bideo-deiak egitea, klase grabatueta sartzeara eta ordainketak kudeatzea ahalbidetzen du.

Datuen segurtasunerako eta babeserako sistemak, erabiltzaileen pribatutasuna bermatzeko.

2. Bideokonferentzia-tresnak

Eskola partikularrak egiteko eta zalantzak denbora errealean modu egonkorrean eta audio- eta bideo-kalitate onarekin argitzeko aukera emango duen softwarea.

3. Online ordainketa-sistema

Harpidetzak, klaseen araberako ordainketak eta plataformarako komisioak kudeatzeko ordainketa seguruko pasabidea.

4. Hezkuntza-edukien datu-basea

Klase grabatuak, partekatutako apunteak, praktika-azterketak eta Pro eta Premium erabiltzaileentzat eskuragarri dauden material didaktikoak.